

Estitxu KANTATUZ

Lauetan hogoita hamarreko amarkadan ikusiz gure Aldudeko ibar aranean kantua ixiltzen hari zela, gogoeta batzu eginak izan ziren. Hori zela eta kezkek alde batetarat utzi, Mikel Erramouspek kantaldi bat antolatu zuen ibarreko kantari batzuekin. Gaia jarri zen Mañex Pagola : beraren obratik kantu batzu aukeratu eta kantatu ziren modu arras ximplean .

Kantariak gutiz gehienak ibarrekoak ziren.

Holaxet egin zen 1993an Manex Pagola Kantatuz.

Egia erran ideia Daniel Landartena izan zen.

Geroztik kanta autoren obra zombait eman ditugu : Etxamendi-Larralde, Michel Labeguerie, Xalbador, Xabier Lete, Pier Pol Bertzaitz, Imanol, Oskorri bai eta ere Errobi taldea Michel Ducau, Anje Duhalde eta Daniel Landarten kantuekin.

Horrela sortu zen KANTATUZ saila gure ibarrean, Aldudarrak batasunaren geriza pean.

«Kantatuz» en funtsa

Gure xedea EZ DA omenaldi bat egitea

Gure helburua, afiziona sortzeaz gain, kantuari sentsua ematea da, bai eta ezagut araztea gazter , hautatukakoen obrak nor eta zoin diren. Garaiko kontestuak ezagutzea, zer baldintzetan sortu diren kantuak eta abar...

« Kantatuz » en forma

Gaurko « Kantatuz » en forma 4/5 musikarien inguruan egituratzen da.

Ibarreko kantariari emana zaie lehentasuna, baina Ziburu Senpere Hazparne Iholdi eta abar gaindiko kantariak ere zabaltzen zaiote atea.

Hiru hogeit bat kantariak parte hartzen dute, izan banazka bidanazka edo multxoka. Hastapeneko kantari bakartiar izaitetik kantari kolektibo bat izaiten ari dira.

Errepikak maizago, eta zorrotzago egiten dira, eta gure estiloa pop folk, eta pop rock inguruan sailkatu daiteke, baina hau ez da mugatua hortan.

Kantuak.

Gure ustez kantuak funtzio bat betetzen du, kantua ixtorio bat da, mezu bat dakar, izan konteztazio aldarrikapenezko, amodiozko pena bat edo erromantikoa, bozkariozkoa, oihu bat , garrasi bat !

Kantariak.

Beti gure ustez kantariak kantuaren zerbitzuko jarri behar du eta ez alderantziz. Hitzari ainitz erreparatu, behar du jakin zer erraiten duen eta

kantua kondatu. Hitzen indarrak dute egiten kantua ,eta gero bertze estetismo forma gaineratekoek, izan ahotsak ,musikek, kantua edertu edo sublimatu egingen dute.

Bukatzeko :

Kantua kondatua denean, hitza musikatua eta musika hitz bihurtzen denean, sendimenduzko sokak dantzan jartzen direnean, orduan bai erran ditaike helburua lortua dela.

Dena dela aurtengo « Kantatuz » berria Estitxu kantari xoragarriaren erreperatorioaren inguruan izanen da.

Kantariak : les groupes Lauburu, Mindegi, Astezkenekoak, Bankarrak, Senpertarrak, Nunbaitike, Kantiruki, Guy Saldubéhère, Aire ahizpak, Xendarineko ahizpak, Mathilde Etchebarren, Aurélie Etchepare, Magali Zubillaga, Amaia Hirigaray, Miren Tristant, Amaia Riouspeyrous, Maitena Goicoechea, Brigitte Etcheverry, Pauline Junquet, Juliette Alfonso, Eneko Lamothe, Jon Itzaina, Kattalin Indaburu, Thierry Biscarry, Maddi Zubeldia, Maitena Monaco, Mattin Lerissa ...

Musikariak : Thomas Saez, Sébastien Desgrans, Paul Vernhères, Nicolas Vielle et Pierre Sangla.